

Ez nuan uste Lezo'n ba'zanik arraunketako gizonik baña ba'dira asko ta onak ifork ez uste izanik orrengatikan niozkateke bertso batzuek jarri nik.

Bat, bi, iru, ta bost bezela ziraden ogeitazortzi oso ederki ornitu ziran Lezo'tar utsaz bi ontzi ba orrelako gauzari beti jandea biltzeko utzi.

Ontzi bateko arraunlariyak ziran danak ezkongayak, bestean berriz ezkondutako gizon azkar ta biziyak arritu gaitu gazteai auk sartu dioten ziriyak.

Uste genduen gazteak aisa irabaziko zutela ta zarrak ere ez izaki ba arraunketa ain motela; aitor dezagun oraingo beintzat zarrak geyago dirala.

"Ezkongayetan zerbait banintzen ezkondu eta ezer ez" ori dago, bai, esana baña gezurra da nere uestez orain beñapein ikusi degu ezkondua gayen gañez.

Ezkongayetan onak ba'ziran baña utzi au esaten onak bezela dakazkigunak dira aguro nekatzen orrelaxe ba askotan guri kukubak digu kantatzen

Beste gauza bat esan bear det berandu det ba jakindu ezkongai abek goizetik ziran arraunean erdi lertu trañero billa ziraderelako Ondarrabiyan izendu.

Arraunketa bai oso polita izan zuten ezkongayak baña laistertxo nekatu ziran alde-aldean erdiyak beraz onela auexen paltan galdu zuten ba guztiyak.

Aurrenekoan zuten gazteak oso ederki bogatu baña geroko zirudieneg egin ziraden nekatu, beraz lagunak oraingotikan indar zarrari barkatu.

Aspalditxoan jan edanian bogatu gabe bizitu, geroko ere ederki dute berak jatekoa sortu baba berriyak egin zaizkate eskustan ba agertu.

Eskuetako baba berriyak bukatzean ez kejatu epurdi masail oyetan ere laister dira-ta zoritu danak ezin jan ba'dituzute laguntzeko neri deitu.

Gaztietako patroya ziñan Ixidoro Irastortza zuzen juan ziñan bañan alperrik bestean zegon-ta gatza baña egliyak danak zenduten atera ugari patza.

Beste ontziyan patroï zana zan Joxe Migel Salaberrri bidean ziran zuzen okerrak ibilli zuten au larri baña denborek batu-ta beintzat au zana aurrena etorri.

Ontziyak ere ba-zuten bada beren ona eta txarra txar onek zuben (lengua ba'da) izena "San Pedrotarra" onen aldean askoz obee da beste ontzi "Muskerra".

Oso ederki agin zenduten nere Lezo'tar maiteak kalterik beintzat ez dezute-ta ez batek eta ez besteak gañera beti lagun zerate bai zarrak eta gazteak.

Orain ederki danan artean diru orixe gastatu ori dalako onen-onena lagun artea agertu eta datozen urte askotan orlaxe bada jarraitu.